

Cano eta Zaldua ipuingintzaz mintzatuko dira gaur Donostiako DK-Literaturan

DONOSTIA. DV.

DK-Literatura programaren beste saio bat izango da gaur Donostiako Liburutegi Nagusiko ekitaldi aretoan (San Jeronimo kalean), arratsaldeko 7:30ean, bertan Harkaitz Cano eta Iban Zaldua mintzatuko direlarik, ipuingintzaz, Uxue Apaolazak galdetzaile-bideratzaile lanak egingo dituelarik.

Izenburu hau jarri diote solasaldiari: Neguaren etorkizunak, (euskal) ipuingintzari begirada. Donostia Kulturak honela azaldu du gaurko ekitaldia: Idazleok (euskal) ipuingintzaren panoramaz jardungo dute, interesatzen zaien ipuingintza motaz, interesatzen zaizkien autore-liburu-korronteez Eta hainbat galderari erantzungo diete: Ipuinak zer du nobelatik eta zer poesiatik? Euskal ipuin-bildumen (erlatiboki) ugaria literatur azpidesarroiola ala modernotasun zeinu ote? Garrantzi handiegia ote du edukiak formaren aldean euskarazko narraziogintzan?

Bestalde, iruzkin-gogoetetatik praktikara etorrira, idazleok ipuin labur bana irakurriko dute ekitaldian zehar. Saiootan ohitura den bezala, solasaldirako aukera izango da.

Bi idazleok askotan azpimarratu dute ipuinen garrantzia, eta agerian utzi genero honek euskal panoraman daukan pisua. Gainera, batez ere genero hau landu dute biek ala biek.